

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

967

27/2020 EBAZPENA, urtarrilaren 15ekoa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena. Honen bidez, Nicolás Francisco González Lopez jauna Teknologia Eremuko zerbitzuburua izendatu da, izendapen aske bidez, Informatika eta Informazio Sistemetako Zuzendariordeztan, Zuzendaritza Nagusian.

774/2019 Ebazpenaren bidez, Giza Baliabideen zuzendariarena, Teknologia Eremuko zerbitziburua lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia onartu zen (Informatika eta Informazio Sistemetako zuzendariordeztan), Zuzendaritza Nagusian.

Balorazio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, ukanbeharrak betetzen diren berrikusi, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Nicolás Francisco González Lopez jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Teknologia Eremuko zerbitzuburua (Informatika eta Informazio Sistemetako zuzendariordeztan), Zuzendaritza Nagusian.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Nicolás Francisco González Lopez jauna izendatzea Teknologia Eremuko zerbitzuburua (Informatika eta Informazio Sistemetako zuzendariordeztan), Zuzendaritza Nagusian.

Bigarrena.– Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2020ko urtarrilaren 20a.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, eta Giza Baliabideen Plangintza eta Kudeaketarako zuzendariordeztari jakinaraztea.

2020ko otsailaren 20a, osteguna

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 15a.

Giza Baliabideetako zuzendaria,
MARÍA PILAR URIARTE BRIZUELA.